

Goi

Goierritarra aldizkaria

374. zenbakia 2010eko urtarrilak 29



**IDIAZABALGO
HERRI
KROSAK
30 URTE**

BERRIKUNTZA GOIERRIN

ZENTRO TEKNOLOGIKOA BIDEAN DA



Goierri

Berrikuntza gunea
Polo de innovación

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

LORTEK

Goierri
eskola

lanbide



Nortasun **marka**

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

www.faktore.net



Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR 1 Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG




R.P.S.:32/04

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Ekaitz Goikoetxea

Aupa Irati!

Garaien garaikoa, on ta berritik izenek iradokitzen due-nik eskeintzen eztiuen gau ta eunez idatziko dinat ba, gaon ta euberriz. Hik hartze al dien on ta berri usayik? Bai, tabernek ordezka ditizten baserrik, zuhaitzetako gaonek gaoneta-

ko zuhaitzek, baño nor be earrin ittota seitzen dinau, eske, eske ta eske. Ta gu santa eskea otsaillen zalakon. Olentzeroi ez danen Santa Klaus, Papa Noeli ez danen Hiru Erregei, urte berrie ta Españiko Loteri Nazionala tentatzen donik'e baen, bazpare, baakin. Txarren-txarrenen ikatza utziko ziuten.

Baño guk, buruieko bi hankadun gaxook, eskatzen jarrita, ba al zekiñau zeñi, ze ta ze eskau? Urte oson zehar

Urte oson zehar Zartzuela ta ejertzitao maarikatzen dittuenak loteritan xahutzen duen dirue noa dijon ahaztuta.

monarkie larrutzen aitzen dienen seme-alabak erregei erreuka, urte oson zehar Zartzuela ta ejertzitao maarikatzen dittuenak loteritan xahutzen duen dirue noa dijon ahaztuta. Azala behar din, geo! Azala bakea, zoriona, osasune, maitasune ta gañeako tasun guztik ze ta urte berriri eskatzeko. Dana dalakoi dezakena eska ber zaion, ez besteik. Ez al zain iruitzen? Lau urten behingo propina ta guzti, gutxi dittun ba 365 eun nork be zorionan kudeaketan nahiera bizitzeko.

Portzierto, ba al den eunotan hire fedea bereanatzan don Jainko, ez-jainko, zeremoni o zelebrazioik? Ta, eskea besteik ez dan gizarte hontan zer den hik urte berriri eskeintzen dionana?

Nik? Ez, nik aspaldi utzi nionan bizitza urteka zatitzei.



Irati Goikoetxea

Harrapazak! Zeñek esaten zian zeako zea hue? Galdera plakoi eantzun potoloa eman ber zaiola... o aldrebis zian? Bo, igualtsu izango zio. Hi bai mutil azkarra! Plako o potolo hik bota dittuk hirek, ta oaiñ hortxe hao beida-beida jarrita ttikik ze eantzungo. Bai, baze-kiat, hik eman hian abixue: hasi eorri. Ta ni zea, alpertuta bakazioi heldu berritan. Ta oain harrapazak! Galdera aurretik jute omen dek. Hoi're ez zekiat zeñek asmauko zon.

Konforme neok hik esandako guztikin, hik'e bakik, bular bereko esnea eatek arrastoa uzteik bizitza guztiako. Gaonetako nee kontuk kontatzea nahi dek? Gaonak o... neuko bakaziok esango zieau. Onak, onak, gue etxen gauek bakarrik ez, eunek'e onak izaten dielako. Bakazio aurreko institutoko azken festa euneire aurtien izena aldau

Bular bereko esnea eatek arrastoa uzteik

zioau ta, ze esatea nahi dek, nik'e nahiao diat hola: Neuko Festa. Aurtengo festa eune loterin eunen tokau zian. Hue bai jun zala gordo-gordo! Ez, loterie ez; festea! Loterie gordo ez, loterie potolo jun dek netzako; potolo, hire galderak bezela. Ez zaiak xentimoik'e tokau! Triste al naon? Triste? Bai ta zea're! Lankidei 120 euro tokau zaiak ta ni pozik. Nei? Ez, ez, nei ez zaiak xentimoik'e tokau. Ez, ez, ez nian dezimoik eosi. Tentela ni? Ez dakik ondo! Pozik neok, libre sentitzen nauk, lasai, nee burukin conforme. Hik'e ondo dakik hoi, ez daola norbe burukin koherentea izatea baño gauza earragoik. Hoixe, ezer berezik in be pasa diela eunok; ta dana izan dek espeziala: idatzitako ipuiye, mendia indako bueltak, leittutako liburuk, etzanak...

Urte berriri ze eskatzen dioan? Potolo-potolo jungo huke eantzutea, hire galderan antzea, potolo-potolo, ta tokik ez ziaik gehioako ematen. Akaso hurrengo urten... saiauko neok eantzun plakon bat bilatzen.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama,
Itsasondo eta
Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierriarra aldizkaria

HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbalde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu
ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Ezerk ezin izan du berunezko emakume honen
borondatea makurrarazi; guztioi duintasun lezio
aparta eman digu, eta pertsona baten borondateak
estatuak garaitu ditzakeela ere erakutsi du.



Beñat Hach Embarek

Animatu Aminetu

Badaude momentuak bizitzan, bai lanagatik eta eguneroko esfortzuagatik, bai kasualitate, kausalitate edota zorte hutsagatik, non gure norbanako ezaugarriak nahasten joan eta edozein unetan eztanda egingo duten lehergailuak bihurtzen gaituzten. Hori da Amineturi gertatu zaiona.

20 urte zituenean atxilotu zuten lehen aldiz, eta harrezkerotik bere bizitzaren zikloa ez da gehiegi aldatu: militantzia, atxiloteta, tortura, desagertuta egon, kalera irten... eta berriz berdina. Bere 42 urteko gorputz zigortua da azken hilabetean Lanzaroteko aireportuan ikusi duguna.

Orokorrean, Historia aldatzea borondate kolektiboen nahia-
ren ondorio izan ohi da; sahararron gatazka ez da salbuespen bat. Baina, noizbehinka, gutxitan, urte batzuen bueltan, pertsona bereziren bat agertu ohi da; borrokari haize fresko eta purua, oso purua, ematen diona. Bobby Sands eta gose greban hil ziren IRA-ko beste 10 militanteak (egun hauetan zehar asko oroitu naiz haietaz), Iñaki de Juana, edota Aminatu Haidar bera.

Orain, errepaso labur bat: Aminetuk El Aaiungo (Mendebaldeko Saharako hiriburua) aireportuan sartzean idatzi zuen fitxan hutsik utzi zuen nazionalitatea jartzeko espazioa, ez zuen marokoarra zela idatzi. Arrazoi hau aitzaki moduan erabili, eta Kanariar irletara kanporatu zuten hegazkin batean; hori bai, aurretik pasaporte eta dokumentazio guztia kenduta. Lanzarotea iristean Aminetuk mila aldiz errepikatu zien guardia zibilei dokumentazio kendu ziotela marokoarrek, eta ilegala zela bera estatu espainiarrean horrela sartzea; baina txapelokerrak ezetz, jaisteko hegazkinetik. Aminetu jaitsi zen, bada, eta ondoren ez zien etxera bueltako hegazkinik hartzen utzi ez zeukalako dokumentaziorik.

Lehenik eta behin koka gaitezen testuinguruan. Pentsa dezagun borroka eremua errepide bat izan dela, karril bakarrek, eta bi ibilgailu datozela kontrako norabideetan: alde batean espainiar eta marokoar estatuaren trailerra; eta bestetik Aminatu Haidar bizikletan. Zein izango da azken momentuan, talka saihesteko, kaminotik aterako dena? Ikuspuntu honengatik egon naiz hain ikaratuta; azkeneko egunetan Aminetu hilko zigutela pentsatzen nuen. Zer beste ezer uste nezakeen, ba? Bi estatu batetik, eta emakume bat bestetik? Bera bakarrik!

Hor dago istilu honen beste ezaugarri harrigarri bat: berari

egin diote eraso, berak erantzun du, berak kudeatu du gose grebaren ibilbidea, berak maneiatu du beste inor baino informazio gehiago, eta berak eman dio, azkenik, amaiera bere protestari. Fronte Polisario edo Aljeria atzetik zebiltzala Marokok bere komunikabideen bitartez zabaldu duen gezurra izan da. Polisariok oso jokabide zuzena izan du Amineturekiko eta bere baraualdiarekiko; nahi izanez gero, bere onurarako erabil zeakeen sortu den istilu guztia, eta ez du hori egin. Bigarren plano guztiz duinean mantendu da gure askapen mugimendua, hori zelako zuzenena eta Amineturentzat onuragarriena.

Aljeriak ere oso jarrera zorrotza eta inteligentea izan du krisiak iraun bitartean. Marokok egindako salaketa oso larria da, Aminetu aljeriarrek manipulatzeko zutela esatean. Aljeriako gobernuak gogor erantzun zezakeen inongo oinarririk gabeko gezur horri eta Maroko ipurdi-agiri utzi munduaren aurrean; baina horrek beste erantzun bat ekarriko luke bizilagunaren aldetik, eta elur-bola handitzen joango litzateke, estatuen arteko ika-mika nagusi bihurtuz eta Amineturen presentzia komunikabideetan alboratuz.

Aipatutako iruzurraz gain, prentsa marokoarraren arabera, nire amatxo maitea zerbitzu sekretu aljeriarrek ordainduta omen zegoen bertan Aminetu laguntzen. Ez dakizue zer nola-ko atsekabea hartu nuen ama Lanzaretetik itzuli eta kontu korrontea ez zitzaigula gizendu ikustean; kontu eske joan beharko naiz Aljeriako gobernuari.

Aurrerantzean lortu behar duguna azken hileko klima mantentzea da, gogorarazi Aminetu preso dagoela bere etxean, eta gure herriaren egoera egunerokotasunean islatu; hori da Maroko kolpatzeko daukagun armarik onenetakoa.

Pasaporte espainiarra edo marokoarra izateko eskaintza, seme-alabak erabilita egin dioten xantaia, Marokoko errege totalitarioi barkamena eskatzeko eskaera... Ezerk ezin izan du berunezko emakume honen borondatea makurrarazi; guztioi duintasun lezio aparta eman digu, eta pertsona baten borondateak estatuak garaitu ditzakeela ere erakutsi du. Herri sahararraren egoera munduko hainbat komunikabideen lehen planoan jartzea lortu, eta inflexio puntu garbia markatu du saharar herriaren iraultzaren historian. Eta hori guztia gutxi balitz, irabazi egin du.

Baina ez ahaztu! Guztia Rosa Diezi esker izan da!



kutxa




ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxe: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

RES. Nº 19084116

MULTIOPTICAS

1.ª ZERBITZU OPTIKOETAN

ZEUK
AUKERATU

www.multioplicasgipuzkoa.com

J.M. Barandiaran Enp. • Tel.: 943 88 99 88 • ORDIZIA

50€
BETAURREKO
ZAHARREN TRUKE

2garren
BETAURREKOAK
DOAN

% 60
rainoko
BEHERAPENA
LEHEN MARKETAN



Bilagaria 2010eko martxoaren 7ra arte. Ezin daiteke beste eskaintza edo promozio batzuekin pilatu.

San Benito ikastola

KALITATEZKO HEZKUNTZA INTEGRALA

*Zure seme-alabaren hezkuntzan
parte hartu nahi dugu*

- Gertuko jarraipena
- Irakasle talde finkoa
- Giro euskalduna
- Teknologia berrien bultzatzailea

Izen-emate epea:
Otsailaren
1etik 12ra

- Eleanitza
- Garaso eskola
- Garraioa
- Jangela

BATXILERGOA BERTAN

www.sanbenitoikastola.net

Tel. 943880800

Emaila: lazkao@ikastola.net

LAZKAO



Etheen eraikuntza arduratsua



Eraikuntzak ingurugiroan eragin handia du, horregatik hauek murriztea garrantzitsua da bai lurreko baliabideentzat, bai gure osasunarentzat.

Aintzina, eraikuntzan erabiltzen ziren irizpideak gaur egungo bioeraikuntzarekin zerikusi handia dute. Kultura guztietan etxe xumeak egiteko garaian, inguruko baliabideak eta klima kontutan hartzen ziren.

Bioeraikuntza, eraikuntza bioklimatikoak eta abarrentzat isolamendua, tokian tokiko materialak eta eraginkortasun energetikoa oso garrantzitsuak dira etxeak garatzeko edo berritzeko orduan. Gainera luzera begira dirua ere aurrezten da. Laburpen apal gisa honako irizpideak:

- ✗ Etxeak egiteko lursaila aztertu, ezaugarri geologikoak, klimatikoa eta kulturalak. Lekuaren arabera (Andaluzia edo Euskal Herriko etxeak ez dira berdinak) eraikuntzak ezaugarri ezberdinak ditu.
- ✗ Jabearen beharrak zeintzuk diren zehaztu.
- ✗ Materialak osasungarriak eta biobategarriak.

Bioeraikuntza, eraikuntza bioklimatikoak eta abarrentzat isolamendua, tokian tokiko materialak eta eraginkortasun energetikoa oso garrantzitsuak dira etxeak garatzeko edo berritzeko orduan.

Naturarekiko arduratsuak, gertukoak, naturalak, berziklagarriak, berziklatuak,...

- ✗ Energia eta ura aurrezteko sistemak ezarri. Elektragai eraginkorrak, euri ura erabili ahal denean, ...
 - ✗ Isolamendu egokia horma eta leihoetan, beroa ez galtzeko.
 - ✗ Energia berriztagarriak erabili. Haize errota, eguzki plakak, geotermia, ...
- Gaur egun material "alternatibo" ugari daude eraikuntzarako, beti hor izan ditugunak gehienak (karea, igeltsua, zura eta abar).
- Isolamendurako egokiak zuntz naturalak dira (kalamua, kotoia, kortxoa, kokoa...) eta baita buztinezko arlita ere.

Egitura eta itxiturentzat: bertako egurra edo FSC zigilua duena, harria, lur egosizko adreiluak,...

Paramento eta morteroetarako: karea, igeltsua, buztina, egurra,...

Margoak eta barnizen industriak ere, produktu berriak ekoizten ditu irizpide hauek betetzeko. Ingururekiko ez hain arriskutsuak eta kutsagarriak eta osasunerako egokiagoak.

Bioeraikuntzaren arratxoa zuei iristea atsegingo genuke. Etxe berria eraiki behar baduzue edo zaharra berritu erabili bioeraikuntzaren onurak, agian garestiago izan liteke hasieran baina epe luzera hobea izango da.

Koro Irazustabarrena
Informazio gehiago:
Asociación de Estudios Geobiológicos, GEA

JAKIN BEHARREKOAK

'Natura 2000 sarea'
Goierriin:

Erakusketa

Ordizian, urtarrilaren
27tik 31ra, Barrena
Kultur Etxean kalean

**Zegaman, otsailaren 3tik
7ra,** Kultur Etxean

Hitzaldia

**'Euskal Herriko natura
2000 sarea'** hitzaldia,
otsailaren 4an, Zegamako
Udaletxean.

Laburra

**Auzitegi Gorenak,
Urdaibaiko itsasadarra-
ren eskuin aldean urbaniza-
tzeko, Eusko
Jaurilaritzak zuen plana
baliogabetu du behin
betirako.** Auzitegi
Gorenak, aurretik Euskal
Herriko Auzitegi Nagusiak
emandako epai bat berres-
tu du. Orduan, Urdaibaiko
Antolamendu Plana alda-
tzeko Ingurumen Sailak
izandako ekimenaren
aurrean, Ekologistak
Martxan aurkeztutako erre-
kurtoari arrazoia ematen
zion. Asmoa, Kanala beze-
la ezagututako itsasadarra-
ren eskuin aldean, legez
babestutako 28 hektareako
lursailen, txaletak eraiki-
tzea zen.

Esaldia

**"Bizi zaitez xumetasunez
beste batzuk bizi ahal
izateko"** Gandhi

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako
orrialdea. Taldean parte hartu,
gairen bat aportatu edo albisteren
bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es



Andramendi. Urbialde 2 - Beasain - Tel./Faxa: 943 88 96 17 - Haurtzaindegia: 685 73 36 88 / 665 73 97 50

E-posta: beasain@ikastola.net - www.beasaingoikastola.com

0-12 urte: BEASAINEN IKASTETXE BAKARRA EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN MUGIMENDUAN



Mundua eraikitzeko eta berritzeko, irakurtzeko eta sortzeko Euskal curriculumean eta Adimen Emozionalean sustraitua, Euskal Herriko Ikastolen metodologia erabiltzeaz gain, idazketa-irakurketa goiztiarra, psikomotrizitatea eta soin heziketa modu integralean lantzen dugu.



Euskaltzalea eta eleanitza. Elkar-bizitzarako euskara hautatzeak egiten gaitu euskaldun. Ama-hizkuntza maitatzeak egiten gaitu anitz eta nor. Ingelesa 3 urtetik aurrera. Frantsesa Lehen Hezkuntzako 4. mailatik aurrera.



Izateko sortu eta sortzeko izan. Tresnarik berrienak eta 40.000 ariketaz osatutako IKASYS programaren bidez mundura zabaltu eta norbere ahalmenak garatu.



***Haurtzaindegia (0-3)
Ludoteka eta jangela*** urte guztian zabalik, abuztuaren salbu. Hezkuntza proiektuan txertatutako zerbitzuak. Bertan erosi eta prestatutako janaria.

MATRIKULA KANPAINAKO AURKEZPENA:
Otsailaren 2an. 5:30etan euskaraz. 6:30etan erdaraz.

Denetik (XXXI)

Maizpide euskaltegia

Aurkitu eta aurkitu!

Maizegi erabiltzen dugu aditz hau, lagunok, eta beharrik ez dagoenean... behin baino gehiagotan! Hona hemen hainbat adibide, erdal usaina darienak guzti-guztiak:

- ✗ Zegama Goierri bailaran aurkitzen da kokatuta, Aizkorriren magalean. *(desegokia)*
- ✗ Ondo aurkitzen ez babaiz, bar ezan aspirinaren bat, Dolores! *(desegokia)*
- ✗ Mendian, larre artean, aurkitzen da loretxo bat... *(egokia)*
- ✓ Zegama Goierri bailaran dago, Aizkorriren magalean. *(egokia)*
- ✓ Ondo ez bahago, bar ezan aspirinaren bat, Dolores! *(egokia)*
- ✓ Mendian, larre artean, bada(go) loretxo bat... *(egokia)*

'Bilatu' gora, 'bilatu' behera!

Gogoratu, bestalde, aurkitzea aurrez bilatu izanaren saria izaten dela, eta ez alderantziz!

- ✗ Kostata, baina bilatu dut belarritakoa! Iratiren gelan zegoen. *(desegokia)*
 - ✓ Kostata, baina aurkitu dut belarritakoa! Iratiren gelan zegoen. *(egokia)*
- "Topatu" aditza ere hor dugu:
- ✓ Klean nindoala, Jaxintorekin topatu naiz. *(egokia)*
 - ✓ Klean nindoalarik, Jaxintorekin egin dut topo. *(egokia)*

Konortea berreskuratu?

Badirudi gaur egun dena 'berreskuratzen' dela.

- ✗ Zerraldo erori eta susto izugarria eman eta gero, azkenean konortea berreskuratu zuen gure Joxek. *(desegokia)*
- ✓ Zerraldo erori eta susto izugarria eman eta gero, azkenean bere onera etorri zen gure Joxe. *(egokia)*
- ✗ Joan den astean galdutako ordua berreskuratu behar dut gaur. *(desegokia)*
- ✓ Joan den astean galdutako ordua sartu behar dut gaur. *(egokia)*
- ✓ Lontxori motorra lapurtu zioten Madrilen, eta ez du berreskuratzeko itxaropenik. *(egokia)*

'Lehengusu denak joango dira'

Euskaltzaindiak zera dio 'dena' zenbatzaileari buruz, esaldiren batean joatekotan, bakarrik joan beharko lukeela (ez duela lagunik behar, alegia). Izenari zerbait gehitzeko tentazioa badugu, 'guztia' zenbatzailea ezin aproposagoa izango da (hau ere bakarrik joan daitekeen arren).

- ✗ Lehengusu denak joango dira igandeko bazkarira. *(zalan-tzazkoa)*
- ✓ Lehengusu guztiak joango dira igandeko bazkarira. *(egokiagoa, txukunagoa)*
- ✓ Gure lehengusuak joango diren? Denak joango dira igandeko bazkarira. *(egokia)*
- ✓ Gure lehengusuak joango diren? Guztiak joango dira igandeko bazkarira. *(egokia)*
- ✓ Azkenean paperik gabeko etorkin guztiak onartu ditu Vikeko Udalak. *(egokia)*

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Olegario ez dela ondo aurkitzen uste du bere lagunak.
2. Olegario eta laguna aurkitu direnean, saguzarra aztoratu egin da.
3. Olegarioren betortzak egoera onean aurkitzen dira.
4. Jendeak bestela uste badu ere, saguzar guztiek dute ikusmen ona

OHARRA: azkena izan ezik, denak gaizki, dedio!

Lehenengoan, **ez dagoela batere ondo** (zurbil dagoelako); bigarrenagoan, **topatu direnean**; hirugarrengoa, **ondo daude** (zorrotz-zorrotzak, kar-kar).

Hildakoa ematen duk, Olegario!
Har ezak gazte birjinen odola
eta metal-ura, aurpegiko kolorea
gorritzeko! Gora Osasuna!
Gora gorritxoak!

Hi, Xagu, atzeko horri ez
iezaiok kasurik egin! Ez zegok
burutik batere sano!



Bi banpiro eta saguzar bat...

Jose Mari Ormazabal

Goierriko Berrikuntza Gunea

Otsailaren 1ean, Goierri Berrikuntza Guneak beste aurrerapauso bat eman-
go du, enpresei eskaintzeko lekua
hasiko baitira eraikitzen. Goierri Fundazioa,
Goieki, Goierri Beheko Industrialdea, Goilan
Fundazioa, Goierri Eskola, Mondragon
Unibertsitatea, Ikaslan eta Lortek, elkarlanean
ari dira berrikuntza eta garapena oinarri izango
duen gune teknologikoa sortzeko lanean.
Goierri Fundazioko Jose Mari Ormazabalek
azaldu digu egitasmoa.

Berrikuntza Gune hau kokatu beharko genuke lehenik. Nondik dator, zeren beharren ondoren sortu da...

Hemen, Goierri Lanbide Heziketako Eskola izan da erreferentzia eta hortik eta batez ere, bertako enpresekin izan ditugu harremanetatik dator ekimen hau. Beti saiatu gara, gure egitekoa, inguruak dituen beharrei egokitzen. Egokitze horretan Lanbide Heziketako ikasleak, enpresen beharrei erantzuteko geroz eta prestatuago ateratzen ziren, eta enpresetatik esaten ziguten, maila horretan oso ondo geundela baino aurrera pausu bat emanez, gure eskaintza teknikoa areagotu behar genuela. Ingeniaritzarekin lotutako gaiekin hastea eskatzen ziguten. Horrekin, 2001ean Mondragon Unibertsitatearekin hitzarmena lotzea lortu genuen, Ingeniaritza Teknikoko ikasketak jarritz.

Ingeniaritza ikasketak goierritarrei gerturatzeaz gain, ikerketa ere martxan jarri behar genuen.

Ikerketari lotuta, hemen, Goierri Eskolatik aspalditxo hasi ginen proiektuak enpresekin garatzen. Eskolara formatzea etor-

tzen ziren enpresetako teknikariak beraien enpresetako proiektuetan parte hartzeko eskatzen ziguten, lasaiago sentitzeko. Kolaborazio lanak egiten hasi ginen enpresetako proiektuak eginez. Lanbide Eskolaren barruko departamentu bat sortu genuen, Goikerri izenekoa. Hor hasi ginen, irakasleak proiektuetan parte hartzen. Zenbat proiektuk, kanpora egun batzuetarako joatea ere suposatzen zuen. Kanpora joate horrek, ikasleei zerbitzu egokia emateko suposatzen zituen oztopoak kontuan izanik, pixka bat gehiago profesionalizatu egin behar zela ikusi genuen. Horrela, teknikariak kontratu ziren, enpresekin proiektu lanetan bereziki aritzeko. Goikerri gorpuzten joan zen, 20 bat lagunek jarduten zuten bertan lanean, enpresekin harremanak estutuz eta eskolari lotuta.

Bere mugak bazeuzkan Goikerri. Zerbitzu teknologiko bat izanik, enpresek eskatutako proiektu zehatzak garatzen zituen eta hori zen bere egitekoa eta finantzazio bidea. Bestalde, ikerketa zientifikoagoa egiteko premia ikusi zen, batez ere gure eskualdean fuertea den soldadura eta lotura sistemen arloan. Horretarako, Lortek sortu zen.

Zer aldatu zen Goikerritik Lortek-era?

Lortek zentro teknologikoa izateko sortu zen. Bere ibilbidea egiten hasi zen. Ikerketa zientifikoago horri helduz, eta Goikerrirekin osatu egiten zuen enpresei bideratutako eskaintza. Eskualdean ikusi genuen, bi antzeko ekimen eduki ordez, batean bildu ezker zerbitzu hobeak eskaintzea lortuko genuela. Horrela, Goikerri, Lorteken integratu zen eta 2009ko urtariletik aurrera elkarrekin hasi ziren lanean, lehengo proiektu lanak mantenduz eta ikerketa lanak egiten, batez ere, lotura sistemetan.

Horrela Goierri gune hau, enpresekin harreman estuak mantenduz, Lanbide Heziketa eta Ingeniaritza garatzen dituen Eskola eta ikerketa burutzeko Zentro Teknologikoa bertan gartuta izanik, gune ezin hobea zela ikusi genuen, enpresek beraien Ikerketa eta Garapen unitateak hona gerturatu eta unitertsitate, zentro teknologiko eta enpresen arteko elkarlana sustatuz, berrikuntza bideak jorratzeko. Ingurune guzti honen definizioa egiteko beste zenbait esperientzia ikusi genituen, Garaia edo Miramon parkeak, esate baterako. Horrela, Goierri horrelako gune bat sor zitekeela ikusi zen; ez oso handia, hemengo beharretara egokituta. Hor sortu zen Berrikuntza Gunearen proiektua.

APTEn sartu ginen. Espainia mailako parke teknologikoen elkarte da eta elkarlanean aritzen dira. Afiliatu bezala sartu ginen. Afiliatuak, oraindik erabat garatu gabe dagoen parkea dela esan nahi du. Horrek aukera eman zigun beste leku batzuetarako proiektuak ikusteko eta gure proiektuaren konfigurazioa egiten laguntzeko. Hori izan da guzti honen hastapena.

Sokari tiraka-tiraka joan zarete, beraz.

Goierriin, beharrak ikusi eta horren inguruan poliki-poiki, hots handirik atera gabe, horrelako gauzak sortu ditugu. Eta gune honekin berdin.

Oso inportanteak dira proiektu honekin sor daitezkeen zerbitzuak, Goierriin bertatik, enpresei eman diezazkiokegunak, edo bertako enpresek beraien berrikuntza unitateak hemen garatzen dituztelako edo bertako enpresekin lanean ari diren beste enpresa batzuk etor daitezkeelako lanak horiek garatzera jasoko lituzkenak. Hori dena oso garrantzitsua da. Goierriin produkzio lanak egiten oso onak izan gara eta gara, baina hori bera egiten gai dira geroz eta leku gehiagotan, eta merkeago.



Gure egoera mantendu nahi baldin badugu, balio erantsi gehiago eman beharrean gaude gure produktu eta zerbitzuetan. Horretarako gakoa, pertsonak dira, pertsonen heziketa eta esperientzia. Horrelako gune bat leku aproposa da, bertan ikasten eta lanean ari direnak, proiektu proposak gauzatzeko aukerak izango dituztelako, beraien gaitasunak egoki garatuz. Gune aproposa ikusten dugu gazteen ezagutza eta esperientzia areagotzeko eta hauek izango dira gure enpresetan egin behar diren eraldaketa lan horietan, balio erantsia emate horretan, zeresan handia izango duten pertsonak.

Beraz bi helburu ditu: bat, zerbitzu zuzenak ematea eta bestea, jendea hezteko gunea sortzea.

Krisi garai honetan, beti esaten da, balio erantsia eman behar zaiola produktuari, aurreratu egin


behar garela...

Apustua egiteko garaia orain da. Zaila ere bai, horretarako beti dirua behar baita, eta momentu honetan eskasia dago. Baina irudimenarekin jokatzuz, horrelako guneak sortzeko momentua orain da.

Momentu honetan, Goierriko enpresak erreferente dira mundu guztian. Berrikuntza arloan ere pauso bat gehiago eman nahi da erreferente izaten jarraitzeko?

Bai, nik uste dut behar-beharrezkoa dela. Aldaketak geroz eta azkarragoak izango dira. Berritu beharra daukagu, eta geroz eta azkarrago gainera. Prestatuta egon behar gara. Ez baliabide fisi-

**Berrikuntza guneak
bi helburu ditu:
batetik, ikerketa zerbitzu
zuzenak ematea eta jendea
hezteko gunea sortzea**



- 1.- Lanbide Eskola
 - 2.- Lanbide Eskola II
 - 3.- Administrazioa. Zerbitzu Zentralak
 - 4.- Berrikuntza Gunearen Egoitza Nagusia + Lortek Zentro Teknologikoa + Unibertsitatearen I+G Unitateak
 - 5.- Lortek handitzea
 - 6.- Enpresen I+G+b Unitateak
 - 7.- Enpresen hazitegia
 - 8.- Oinarri teknologikodun enpresak
 - 9.- Oinarri teknologikodun enpresak
 - 10.- Oinarri teknologikodun enpresak
 - 11.- Ostalaritza eta zerbitzuak
- Lehen lauak eraikita daude.

“Espazioak bete ahala, faseak garatzen joango gara”

Pixkanaka ari zarete osatzen Berrikuntza Gunea.

Proiektua egiten hasi ginenean, erreferentzia gune bat behar genuela ikusi genuen, egoitza nagusia izango zena. Gunearen zerbitzu orokorrak bertan emango dira. Enpresek beraien lanak garatzeko bilera gelak behar dituzte, formazio gelak, liburutegia... guzti hori emateko gunea behar zen.

Bestetik, sortutako Lortek ere nahiko estu zegoen eta haien-tzako ere leku bat behar zen. Eta Unibertsitateko ikasketak egiten ari zirenak ere leku egokiagoak kokatu.

Hasteko, eraikin hori egiteko modua bagenuenez, eraiki horrekin hasi ginen.

Estetikoki, modernoa da, berezia

Proiektuaren sarrera da, atea. Berezitasun pixka bat eman nahi genion.

Otsailaren 1ean, Berrikuntza Gunearen proiektuaren lehenengo harria ere jarriko duzue. Zein fasetan dago?

Enpresentzako erabiliko ditugun lursailak eskuratzeko lanetan ibili gara. Promotora batek hartuta zeuzkan lursail hauek guztiak eta bi eremu landu behar zituen: industria gunea eta etxebizitza gunea. Industria guneako lursailak eskuratu ditugu eta proiektua geure esku dago, dirua eduki ahala egiteko moduan izango gara.

6-7 gunea egiten hasiko gara. 6. eraikina, I+G+b unitateak joango dira; eta 7.enean, enpresen inkubategia.

Goiekik badu bere Inkubategia.

Goiekiren inkubategia izango da. Orain arte, Goiekiren Inkubategian, enpresa txikiak sortu dira, pertsona baten edo biren artean sortutakoak gehienak. Zerbait industrialagoa izatea nahi genuke. Lehen dauzkagun bulegoez gain, tailer koxkor bat bulegoarekin jar daiteke. Inkubategiak izango duen ezaugarria modularra izango dela da, tailerra eta bulegoa neurrira aukera-

tzeko moduan. Lehen dauden enpresetatik sortzen diren enpresa berriak, edo zentro teknologikotik sortu daitezkeenak... garatzeko aukera izango dute tailerra eta bulegoa bertan izanda.

Dena ez dugu batera egingo. Zati bat eginez, eta erabili ahala, gehiago egiten joango gara.

6.en eraikineran, enpresetako ikerketa eta garapena egiten duten unitateak ekartzea nahi da. Enpresa beraiei beharbada, unibertsitateetik gertu egotea interesatzen zaie. Kanpokoak ere izan daitezke. Adibidez, CAFekin edo beste Goierriko enpresa batekin kolaboratzen ari den kanpoko enpresa bati, gerturatzea interesatzen bazaio, leku aproposa izango du.

Guk, orain arte, honen komertzializaziorik ez dugu egin. Orain arte ez geneukan eskaintza egiteko data finko bat eta ez gara eskaintza egitera joan. Analisi bat eginda dago, zein mota-tako eraikina izan behar litzatekeen, zein kostu izango lukeen... baina proiektu zehatza orain egingo da.

Hainbeste jende mugituko den gune batean, 11. gunean, zerbitzu gune bat ere planteatzen duzue, ezta?

Orain momentu honetan, partikularra da. Proiektu honen aurrean, jana emateko lekua, edo kanpotik datozen langileentzat logelaren batzuk egotea oso garrantzitsua izango litzateke. Gune honetan, dena garatutakoan, 600 bat lagun izango gara lanean. Horietatik denak ez dira izango Goierri bizi direnak. Guk momentu honetan proiektu honetan ez daukagu ekimen horren garatzea sartuta.

Noiz bukatuta egotea kalkulatzen duzue?

Nola garatzen doan, horrek ere markatuko digu erritmoa. Ez genuke dena muntatu nahi eta gero zailtasunak izan eraikinetan espazioak betetzen. Bete ahala, faseak garatzen joango gara. Nik pentsatzen dut, datozen 4-5 urtetan dezente garatuta izango dugula hemen daukagun proiektua.



koak bakarrik, pertsonak ere beharko ditugu klabe horietan lanean, gauzak berritzen. Nik uste dut Goierriren etorkizunera-ko garrantzitsua dela.

Hezkuntza aldetik, aldaketaren bat egiteko asmoa daukazue gune honi begira edo espezialitatearen bat jartzekoa?

Lanbide Heziketan, zerbitzua eskaintzen diegu haserako ikasleei, langabetuei eta enpresetako langileei. Horretan egoki erantzuteko, gure eskaintza enpresen beharretara egunero egokituz doa, edukietan eta erabiltzen diren metodogietan.

Ingeniaritza ikasketetan, Bolonia planean sartuta gaudela bi urte dira. Horrela, lau urtetan zehar, graduak garatzen dira eta gero masterrak datoz. Master horiek diseinatzeko prozesuan gaude eta masterren helburua merkatuen beharrei egokitutako gaitasunak garatuko dituzten formazioa ematea da. Nahiko modernoak izango dira. Horren barruan lotura sistemei lotutako master bat garatzeko konpromisoa badaukagu. Hor ere mundu handi bat zabaltzen zaigu. Eskaintza zabala izango da eta imajinazioa beharko dugu aurreikusten diren behar horiei aurre egiteko, zein formazio espezifiko muntatu beharko genukeen masterretan definitzeko garaian.

Jakina, guzti hori garatzeko, Mondragon Unibertsitatean

gaude Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren babesean eta hori alde sendo bat da horrelako proiektu bat garatzeko garaian.

Goierri Fundazioan, 18 udaletxe eta 44 enpresa zaudete. Goierritarrontzat proiektua da.

Berritu beharra daukagu, eta geroz eta azkarrago gainera. Prestatuta egon behar gara. Ez baliabide fisiokoak bakarrik, pertsonak ere behar ditugu klabe horietan lanean.

Etorkizuneko proiektu honen aurrean, oso ikuspegi bateratua dago. Nahiz erakunde, nahiz enpresek proiektu garrantzitsua dela ikusten dute eta bultzatu beharrekoa. Horretan ez daukagu inongo arazorik. Hori bai, denok krisiarekin errekurtsos eskas gabiltza. Baina hala ere, zerbait bultzatu behar baldin bada, jendeak garbi dauka hemen egin behar dela ahalegina. Oso gustura gaude kolaborazioekin.

Orain arte, eraikin berri honetan, inplikazio pribatua, batez ere kooperatibena, oso-oso

inportantea izan da. Asko busti dira, eraikin berri honek izan dituen dirulaguntza beharrei aurre egiteko garaian. Dena ez dugu osatu, baina konpromisoak baditugu. Oso inportantea izan da enpresen laguntza. Udalek ere, beraien ekarpenak egiteko borondatearekin daude, nahiz eta momentu honetan ez dagoen gehiegi eskatzerik, nahiko mugatuta dabilta.

Konbentzimendu handia dago, baina goierritarrontzako proiektua ote den aipatu duzu. Ez da hain proiektu itxia. Garbi

dago goierritarrek munduan zehar gaudela. Gure erreferentziak, mundu mailan daude. Ez gara zerbait endogenoa egiten ari, baizik mundura zabalik gaude. Etorriko diren enpresak, teknologia konkretu batean, mundu mailan liderrak direnak izan daitezke, bertakoekin kolaboratzen ari direlako.

Gune horretan gure gazteak garatzen baldin baditugu, oso prestatuta egongo dira mundu mailan ibiltzeko eta Goierriko beste enpresetan egin beharreko balio erantsi horretan beraien ekarpena egiteko.

Goierritarrok pribilegiotxo bat izango dugula.

Nik uste dut baietz.

Horrelako berrikuntza gunerik ba al da beste eskualdeetan?

Arrasaten Garaia garatu da, hau baino handiagoa, eta hango ideiarekin hasi ginen. Lekuan lekuan ari dira horrelako guneak osatu nahian. Baina beharbada erreferentzia bezala, Gipuzkoan Miramongoa aipa dezakegu.

Gainerako erakunde publikoen diru laguntza aldetik, nola zabiltzate?

Gipuzkoako Diputazioak eraikin honetan lagundu digu eta esperantza daukagu baita ere proiektu osoa garatzerakoan lagunduko digula. Jaurlaritzarekin, bideak aurkitzen ari gara. Borondate ona azaldu dute eta kanalik egokienak aurkitzen ari gara, denok eroso sentituz, hemen beraien ekarpena egin dezaten.

Horrelakoetan, Madrildik eta Europatik jasotzen al da dirulaguntzarik?

Madrildik adibidez, zuzenean, eraikin berri honetarako finantziario bide bat lortu dugu. Ez da subentzioa, baina bai oso baldintza onetan ematen duten finantziarioa. Eraikin berria finantzatzen bukatzeko 4 miloi euro falta zitzaizkigun eta Madrilen aurkeztu genuen Ministerioak ateratzen dituen laguntzetara. Madrildik 4 milioiak eman dizkigute oso baldintza onetan. 15 urtetan itzuli behar ditugu, interesik gabe. Laguntza garrantzitsua da. Hortik kanalizatzen dira Europako dirulaguntzak. Gu zuzenean, ez gara Europara joan, Madrildik bideratzen direlako.

Guk geuk, errekurtsio propiorik sortzeko ez daukagu halako gaitasunik. Ikasketak eta ikerketak, ez du halako soberakin ematen, beti behar ditugu subentzioak, horrelako ekimenak aurrera eramateko.

Belaunaldi berriek etxean bertan izango dute bertan ikasi eta bertan profesionalki garatzeko aukera.

Kezka bat badaukagu, ikasketa orientazio aldetik. Ingeniaritza eta gogor samarrak diren fama

Lotura sistemetan espezializatuak

Elkarrizketan behin baino gehiagotan aipatu duzu, lotura sistemetan gaudela espezializatuta Goierrin.

Lortek-ek egiten duen ikerketa, Europa eta mundu mailako erreferentzia da. Oso adar potenteetan ari gara lanean eta gainera, etorkizuneko bideak jorratzen, lotura sistema horietan. Soldadura eta material ezberdinak, prozesu ezberdinak... ari gara ikertzen. Erreferentzi bihurtzen ari gara. Dauden zerbitzu teknologikoei ere badute beraien espezializazio maila. Osatu egin behar gara. Baina gure esparrua, lotura sistema izango litzateke.

Lanbide Eskola zenetik, bere estrategietan markatu zen, lotura sistemetan erreferenteak izan behar genuela eta horri tiraka, iritsi gara gaur egungo egoerara.

Soldadura, oso prozesu konplexua da, nahiz eta edozeinek egin dezakeela irudit. Geroz eta material bereziagoak eta prozesu konplexuagoak erabiltzen dira. Prozesu hauetan behar den kalitate maila emateko, ezagutza garatzea oso garrantzitsua da. Gaur egun dagoen exijentzia maila horri aurre egiteko, prozesuak ondo garatuta eta pertsonak ondo formatuta behar dute. Horren bueltan garatu da Europa guztian errekonozituta dagoen eta Lortek bera ematen ari den master bat: "Ingeniero Europeo de Soldadura".

duten karrerak egiteko joera pixka bat jaisten ari da. Azken urteetan orokorrean joera hori nabari da, nahiz eta azkeneko urte honetan igo egin den. Beharbada, laneratzeko zailtasuna ikusten denean, jendeak disposizio gehiago dauka ikasteko. Gure kezka, inguruan dauden beharrak osatzeko lain jende animatuko ote den ikasketa mota hauek egitea da. Etorkizuna izango duen arloa izango da.

Bertan, ingeniariitza karrera izatearekin gehiago animatzen al dira?

Bai, jende gehiago animatzen da. Bailaran ingeniariitza egiten duen jendea gehitu egin da, gerturatu egin zaiolako zerbitzu hori. Baina enpresetatik dagoen eskea askoz ere handiagoa da. Beste kezka bat, orain arte nahiko gizonezkoen ikasketa nota izan dela eta emakumezkoak animatu nahi nituzke, horrelako gaietan etorkizun handia daukatelako.

Lortek ek lotura sistemetan egiten duen ikerketa, Europa eta mundu mailan erreferentzia da.



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

xetai
nafarroa etorbidea 1
beasain
www.xetai.net






Murumendi LHI1
Mariaratz z/g Tel.: 943 88 00 25



Alkartasuna LHI eta Alkartasuna BHI
Foru, 8 Tel.: 943 88 26 84

B I P

Beasaingo Ikastetxe Publikoak





Loinazpe BHI
Igartza-Oleta, 14 Tel.: 943 88 26 44



Txindoki-Alkartasuna BHI
Ugartemendi, 6 Tel.: 943 88 07 53

Elkarrekin hazi, **elkarrekin hezi**



Kirolari nekaezina

Lurdes Intxausti,
besteak beste,
Euskal Herriko
trontza
txapelduna
da



Koskol biltzen harrapatu dugu Lurdes Intxausti Idiazabalgo herri kirolen lokalaren atarian. Barrua minduta, senarra hil zitziola bi urte bete berri baitira, baina dagoen lekuan dagoela, harro egon delakoan, luze eta zabal hitz egin digu Lurdes Intxaustik bere kirol zaletasunaz. 43 urte ditu.

Koskol biltzen hasi behar al duzu orain?

Fisikoki ondo mantentzeko kirola da, gerriak lantzeko kirol bat, inoren beharrik ez daukat eta ez da gastatzen, orduerditxo batean nahikoa berotu zara, punteria landu eta gustura joan etxera. Nik ez nekien koskol biltze txapelketa zegoenik ere. 2008an Josune joan zen eta 2009rako erronka bezala jarri nuen. Aurkeztu egin nintzen eta bostetik laugarren gelditu nintzen. Ikaragarri gogorra da koskol biltzea. 50 koskol bildu behar izaten dira.

Herri kirol ezberdinak probatzen ari al zara?

Bakarrik egiteko kirol bati eustea da asmoa. Alegia, trontzan aritzeko, beti norbait behar dut. Koskolatan aritzeko bakarrik nahikoa naiz; lastoa altxatzeko nahikoa naiz. Eta herri kirolak gustatzen zaizkidanez, probatu egingo dut. Batean bakarrik ibiltzea, monotonoa egiten da eta herri kirolak oso abaniko zabalakoa da.

Herri kirolei gustua hartzen ari zara, beraz.

Bai, oso gustura nabil. Herri kirolak aukera ematen dit jende askorekin bat egiteko eta taldean, batera eta bestera ibiltzeko. Daukadan adinarekin aukera hori edukitzea handia da. Nahiko jende gaztearekin ibiltzen naiz.

Orain, trontzan daukazun bikote laguna, Josune

Gorostidi, adinez antzekoa duzu.

Nire adinekoa da Josune Gorostidi. Aurreko urtean Maider Manziorrekin aritu nintzen baina ama izan da. Pentsatzen nuen ez nuela bikotelagunik aurkituko baina Josune Gorostidik deitu zidan. Proba egin eta ondo. Ikaragarri ondo gabiltza. Bakarrik bera, Gaztelun bizi dela eta ni Idiazabalen eta entrenatzeko kilometro batzuk egin behar ditugula.

Herri kiroletan noiz hasi zinen?

Orain bost-sei urte Xiba topaketa sortu zen. Euskal Herriko joko eta kirolen topaketa da Xiba, herri kirolak eta garai bateko jolasak aurrera ateratzeko helburuz, egun bat jarri eta herri ezberdinetako jendea elkartzen ginen, aldi berean, elkar ezagutzeko. Hortxe, nabil tonto-tonto. Ona daukan gauza bat da, 12ko talde behar zela, 6 neska eta 6 mutil. Emakumea herri kiroletan bul-tzatzeko modu bat izan da. Horri esker, Idiazabalen behintzat, lortu da emakume batzuk behintzat, herri kirol munduan mugitzea.

Aitzakia horrekin jende mordoak elkartzen gara eta helburua ez da onena izatea. Beti, denok daukagu gogotso hori, aurrean egoteko, baina hori baino gehiago da. Ikaragarri gustura nabil.

Zein herramintarekin aritzen zara?

Urtero aldatzen joan naiz, norbera ere aspertu egiten delako. Trontza, lasto altxatzen hasi nintzen. Azkenekotan, harri altxatzea, sokatira, toka, xiba botatzea... egin ditut. Trontzari trukoa hartu diot eta horregatik hasi naiz.

Bikote asko al zabiltzate?

Azkenaldian herri kiroletan ikusten bazaitugu ere, aurretik korrika ezagutu zintugun. Nolabait esateagatik, neskek kirolik egiten ez zuten garaian, zu korrika ikusten zintugun. Nesken erreferentzia izan zara. Orain gero eta emakumezko gehiagok egiten du kirola.

Bai, eta hori oso pozgarria da. Gu ere edadean aurrera goazen heinean, fisikoki gutxiexago gara igual, baina garrantzitsuena, zure gorputzarekin gustura sentitzea da. Momentu honetan helburua hori da.

Lehenago korrikan ibiltzen nintzen bezala, gero aukera eduki nuen, taldea osatzen den toki batean parte hartzeko. Adibidez, futbolekin ezin naiz ibili, fisikoki ez nagoelako, indar hori ez daukadalako. Atletismo talde bat sortuko da beharbada Idiazabalen, baina nik uste lekuz kanpo nagoela hor parte hartzeko.

Beteranoen txapelketak izaten dira.

Bai, baina beterano asko ibiliko den bezala, beterano asko ez da ibiliko. Probak gero eta gogorragoak dira eta konstante izatea eskatzen du. Ni konstantea banaiz, baina ez lehian ibiltzeko. Neure burua ondo edukitzea, besterik ez.

“Niretzat, kirola, dagoen aspirinarik onena da”

Korrikari pixka bat ezetz esan bai, baina beste kirola batzuri heltzen diozu. Ez diozu kirola egiteari utzi.

Ez, ez. Niretzat, kirola egitea, dagoen aspirinarik onena da. Nire burua altxatzeko modua horixe da, kirol pixka bat egitea.

Korrikan utzita daukazu, ala jarraitzen duzu?

Idiazabalgo festetako herri krolean ateratzeko asmoa daukat. 10 kilometro dira. Fisikoki ez nago lehenago ibiltzen nintzen bezala, ezta gutxiago ere, baina gustura. Bakoitzak jarri behar dio bere buruari muga bat edo helburu bat. Nire helburua da, gustura bukatzea eta ondo sentitzea. Ikusten badut, oso-oso-oso atzera eta oso gaizki nagoela, kitto esango dut. San Silbestretan-eta ez naiz ateratzen. Utzi egin dut.



zuhatzki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA

Orain kupela gehiago





SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA
KOL. Zko. 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)





Lurdes Intxausti Josune Gorostidirekin entrenatzen. Hurrengo orrian Euskal Herriko txapela irabazi zutenean.

Gipuzkoa mailan, txapelketan, azkeneko bi urteetan, bikote bakarra izan da; gizonetakoan gehixeago. Irabaztea suertatu da. 2008an lau bikote bakarrak izan ginen eta aurtengo sei bikote emakumezkoetan. Sei, zenbaki polita da. Hain jende gutxi garen, finala zutenean jokatzeko dugu. Gipuzkoa mailan ezin gara neurtu, ez badira aurkeztu. Neskak badaude baina ez dute txapelketetan parte hartu nahi. Partehartzeak, prestakuntza bat eskatzen du, ordu asko... lana da. Besteak ez dakizu nola daudden eta konparatzeko oso zaila daukagu emakumezkoek, ez dugulako beste lehiarik egiten aurretik. Zeurekasa egiten duzu ia, beste inorekin lehiatu gabe. Egun baterako hainbesteko lana egin beharra gogorra egiten zait. Olinpiadak hala dira ezta?

2009an gainera, marka egin zenuten.

2008an hobetu egin genuen, 4,46 egin genuen; eta 2009an, 4,25. Horretan askotan zerikusia, egurrak edukitzen du. Egurra ez dago beti egoera berdinean. Hasi orduko konturatu ginen ikaragarri ondo geundela, eta horrek hasiera-hasieratik trontzaren zirri-zarrari eragiteko indarra eman digu.

Beste neska bat falta zaizue Gipuzkoan, bi bikote osatzeko.

Hori da. Polita litzateke.

Entrenamenduak zer izaten dira, ebaki eta ebaki...

Bai, eta fisikoki bakoitza bere aldetik prestatu. Bukaera aldera, astean bi-hiru aldiz gutxieneko, trontzan egin behar da. Serieak izaten dira. Batzuetan lan luzexegoak, besteetan motzaxeagoak.

Baina potentzia asko behar da. Lortzen da, eginaren poderioan. Zure bikotearekin serio aritu behar da. Hobe da pertsona bera-ekin eman eta eman aritzea, batean batekin eta bestean beste-ekin baino.

Bikoteak zer behar du?

Konpenetrazioa eta konstantea izatea; jarritako eguna eta ordua errespetatzea.

Trontzan, teknikak ere balioko du ezta? Irakaslerik izan al duzue?

Bai, Legorretako Esnaolatarrak eta Josunerren senarra, Joxe

Gabirondo. Teknika asko dago eta beraiek oso ondo hartuta daukate eta nik uste dut, izan genitzakeen maisurik onenak izan ditugula. Trontza ere beraiek utzi ziguten. Garai batean trontza australiarrak erabiltzen ziren, handik ekarritakoak zirelako. Orain, amerikarrek egiten da normalean txapelketan. Amerikarrek egiteko gorputza oso landuta eduki behar duzu. Alde handia dago. Askok gustatzen zaizkit. Duten soinua ere oso berezia da.

Zein egur ebakitzen duzue?

Txapelketa garaian pago egurra erabiltzen dugu. Entrenamenduetan, pinua edo ahal dena, oso garesti ateratzen da eta. Egurra ere ezagutu egin behar da eta guk oso-oso gutxi ezagutzen dugu eta horretaz dakien jendea aurkitu behar duzu. Legorretako bi anai hauek, Joxe Mari Esnaolak eta Mainerren senarrak lagundu egin digute material egokia aurkitzen. Izalgo herri kiroleko taldea ezin dut ahaztu, animatzaile onenak beraiek izan dira. Inguruan lagunak behar dituzu, zuk bakarrik motz gera zaitezke.

Harri jasotzen ere aritu zarela esan duzu. Hor ere, indarra eta teknika beharko dira.

34 kiloko harriarekin entrena-tzen dut. Xibarako bakarrik entrena-tzen dut. Neskek, gure taldean, inork ez duen heldu nahi, inork ez duen ikasi nahi. Mikelek esan zidan, zu izan beharko zara. Eta ikasi egin nuen. Teknika bat da. Ez naiz ona, baina defenditzen naiz. Nik ere, herri kirolean lehenengo

utziko nukeen modalitatea izango litzateke.

Lasto altxatzea oso gustukoa duzula esan duzu.

Oso polita da. Gogorra. Baina herri kirolean ez dakit kirol bat dagoen gogorra ez dena. Azken finean, pentsatu behar dugu, baserrietan egiten ziren lanetatik datozela herri kirolak eta baserriko lanak garai batean gogorrak zirela. Lasto altxatzea, ikaragarri kuriosoa da, oso polita. Gora altxatzen zarenean, oso polita da. Kiroldegian daukagu jarrita eta han entrena-tzen dugu.

Modalitatearen bat aukeratu behar izango bazenu, zeinekin geldituko zinateke?

Herri kirolak jende askorekin bat egiteko eta taldean batera ta bestera ibiltzeko aukera ematen dit. Daukadan adinarekin aukera hori edukitzea handia da.



Lastoarekin. Bigarrena, trontza. Baina politena, denetik pixka bat egitea da.

Korrika?

Niretzat korrika, edozein kiroltarako behar den oinarrizko ariketa da. Alegia, trontzan ere berotzeko, korrika pixka bat egin behar duzu. Ahal dela, alde batetik joan eta bestetik etorri. Bestela luze samarra egiten da.

Orokorrean, herri kirola nola ikusten duzu?

Indartu da bai, baina niretzat aldatzen hasi beharrean gaude, gauza ezberdinak erakusten hasi beharrean gaude. Txapelketa beste gauza bat da, baina erakustaldietan txispa pixka bat bilatu beharrean gaude, aldiko ezberdinak jarri, bizitasun pixka bat.

Adibidez, niri orain, gustatuko litzaideke, trontza mistoa poliki-poliki aurrera ateratzea. 2007ko uztailean, eta ez zait sekula ahaztuko, Alegiko festetan, bigarren mailako trontza txapelketa bat zegoen. Bi bikote bakarrik zeuden bakarrik izena emanda. Eskatu ziguten Idiazabaldik ea joango ginen. Idiazabaldik bi bikotek eman zuten izena. Mikelek berak esan zidan, biok joango ginela. Nik ez nekien, baina lehenengo aldia izan omen zen bikote misto bat aurkezten zela lehiaketa bate-

Bakarra izatetik, ugaritasunera

Herri krosaren 30. edizioan parte hartuko du Lurdesek. 24 bat alditan edo parte hartua izango duela kalkulatzen du. "Behin baino gehiagotan, emakume bakarra ni nintzen. Urte haietan, nire lehenengo helburua izaten zen, emakumeek kirola egitea. Kiroldegian lana egiten nuenean ere, logotipo bat atera genuen, 'eutsi kirolari, neska!' jartzen zuen. Nik uste dut, orduko lanak fruitua eman duela. Horrekin konforme naiz. Ez zait inporta txapelketetan ez parte hartzea. Ereindako hazia atera da eta emakumea gero eta gehiago ikusten da, normaltasun osoz. Lehen ez zen hain normala, baina orain bai, eta horixe da niretzat txapelik onena".

Ereindako hazia atera da eta emakumea gero eta gehiago ikusten da, normaltasun osoz kirola egiten. Lehen ez zen hain normala, baina orain bai, eta horixe da niretzat txapelik onena.

ra. Nik ez nekien lehiaketa batera nindoanik ere. Ikaragarri ikuskizun polita eman genuen. Beste bi bikotek irabazi egin ziguten, gu baino gehiago ziren, baina Idiazabaldik joandako hiru bikoteak, segundu eta erdiko tartearekin bukatu genuen.

Gertatzen dena da, gizonezkoei txapelketan jartzen zaien lanak emakumezkoenarekin ez daukala inolako zerikusirik. Gurea, guretzat gogorra da, baina gizonezkoentzat sinplea da. Guk 10 korte egiten ditugu, 45 ontzako enborrean. Paga iza ten da. Mutilek hori bakarrik, sailkapen fase batean egiten dute. Ez dakit zenbat emakumezkoak bukatuko genukeen gizonezkoen lan hori egiten. Nik uste dut tarteko lanen bat jarriko balute, emakumezkoak ere prest egongo lirakekeela bikote mistoak osatzeko. Gaur egun, emakumea gero eta gehiago dago herri kirolatan. Ea poliki-poliki egunen batean sortzen den.

Mikel, dagoen lekuan dagoela, pozik eta harro egongo da. Espero dut baietz.

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 861 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O

aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA



30 urtez korrika

Urtarrilaren 31n jokatu da
Idiazabalgo Herri Krosaren 30. edizioa



Idiazabalgo Herri Krosak, 30. ekitaldia izan-
go du igandean, urtarrilaren 31n. Haur eta
heldu, emakumezko nahiz gizonezko, neu-
rrian neurriko lasterketak dituzte aukeran.
Antolatzaile taldeko Xabier Intxaustirekin eta
Lake Oiartbiderekin elkartu gara 30 urte hauei
errepasoa egiteko. 20 urte zituztela, Tolosako
Cantabriakoan sortu zen 30 urteko abentura.

Kartela ikusita, gaurkoarekin alderatuta, lehenik eta behin, datan ikusi dezakegu aldaketa.

Intxausti: Bai, festen azkeneko egunean izaten zen. 9 edizio horrela egin genituen. Baina horrek bi arazo zituen: batetik, normala den bezala, herritarrek parranda egiten zuten eta herriko korrikalariak ez zuten parte hartzen; eta bestetik, antolatzaile mailan konprometitzen zen jendea, ez zen azaltzen. Aurreratzea pentsatu genuen, urtarileko azkeneko igandera, festen hasiera bezala, alegia. Hamargarren ediziotik, oso ondo. Lasartekoarekin koinziditzen dugu beti, baina hura beste maila batekoa da, federatuena; gurea, herrikoa da.

Nolatan erabaki zenuten lasterketa antolatzea?

Intxausti: Donostiako maratonia hasi ondoren izan zen. Pentsatu behar dugu, orain 30-35 urte, ez zela ia inor ibiltzen korrika; txandarekin ere ez. Korrika bakar batzuk ibiltzen ziren. Donostiako maratonia sortu zenean, booma izan zen. Gu ere kirolariak beti izan gara eta gu ere joan ginen.

Krosarena sortu zenean, gogoratzen naiz, Tolosako Kantabrikoan geundela otartekoa jaten koadrilakoak. Maratonia gora, korrika behera... guk ere antolatuko al dugu zerbit? Eta horrelaxe hasi ginen. 1981ean izan zen lehenengo krosa.

Nola atera zen gogoratzen al zarete?

Intxausti: 8.500 metroko lasterketa izan zen. Lasterketa bakarra izan zen. Probako gazteenak 9 urte zituen. 71 lagunek hartu zuten parte: 14 emakumezko eta 57 gizonezko. 71 horietatik, ia erdiak, herritarrek izan ziren: 25 gizonezko eta 7 emakumezko. Guk ere orduan parte hartzen genuen. Baina geroz eta handiagoa egiten ari zen eta batzuk utzi egin genuen.

Lasterketaren ibilbidea eta luzera bera ere, aldatuz joan da. Lehenengo urtetan, N-1 errepeidea, herriaren erditik pasatzen zen adibidez.

Oiarbide: Behe aldera, Katea aldera jo behar izan genuen.

Intxausti: N-1, plaza parean, justu-justu gurutzatu egiten genuen.

Oiarbide: Kilometro aldetik hortxe ibili gara beti. Bariantea egin zutenean, herrian bertan, jendearentzat ikusteko hobe zelako, herrian bost itzuli jarri genituen. Tartean, obragatik-eta aldatu behar izan dugu. Hazten doan eran, azken hiru urtetan, bost itzulitik hirura aldatu behar izan dugu. Zergatik? Jende asko ateratzen zela ikusten genuen eta bigarren bueltan doblatu egiten zituzten, eta antolatzeko arazoak genituen. Herritarrek ere ez zuten jakiten nor zihoan aurretik. Batzuk kexatu ziren, ibilbideko leku batzuetan, oso jende gutxi egoten delako. Baina nik uste dut asmatu egin genuela.

Intxausti: Kopurua gorantz baldin badoa, hemendik urte batzutura, auskalo. Arizkorreta inguruan pilatu egiten dira.

Ibilbide ezberdinez gain, irteera eta helmuga puntu ezberdinak ere izan dira. Hasiera-hasieran, eliza pare horretan izaten

Aurtengo berrikuntzak

Aurten aldaketa eta berrikuntzarik bada.

Oiarbide: geroz eta jende gehiago dator, eboluzionatuz joan gara. Informatika sartu genuenean aldaketa handia izan zen. Orain, beste fase batean gaude, hori ere pixka bat gaintitzen ari garena. Beraz, erabaki genuen, lehenago edo geroxeago, chip-a sartu beharrean geundela, gauza asko erraztu egingo dizkigulakoan. Sailkapenak berehala izango ditugu adibidez. Horrek koste batzuk dauzka eta hori kubritzeko, bost euro kobratzea erabaki genuen, prezio sinboliko bezala.

Orain arte dohainik izan da lasterketa, ezta?

Intxausti: Gure filosofia, karrera doan izatea izan da. Baina doan izateak ez du esanahi kosturik ez dagoenik. 29 urtetan doan izan dugu. Azken 3 urtetan, egunean bertan izena eman zutenei 5 euro kobratu genizkien; aurrez izena emandakoek doan. Zergatik? Informatikako lanak aurrez eginez gero, asko errazten delako. Karrera hasterako datu guztiak sartuta egon behar dute ordenadorean, sailkapena ondo egiteko. Iaz lortu genuen, gehien-gehienak, aurretik izena ematea. Egunean bertan, 60 bakarrik izango ziren. Aurten, chiparekin animatu gara eta bost euro kobratuko ditugu aurrez izena ematen duenari eta egun berean egiten duenari 10. Jendea aurrez izena ematera gonbidatu nahi dugu, guri lana errazteagatik.

Babes handiena, udalarena da. Festetako egitarauan sartzen da eta festetako ekintza bat izan da, behar dugun dirua ematen digu udalak. Horrekin ez da dena osatzen. Orduan, gu saiatzeko gara herriko elkarte, dendari, tabernari, enpresei dirua eskatzen eta gehienek, gehienean, oso ondo erantzun izan digute beti. 80 entitate ezberdinetara iristen gara. Batek 20 euro emango ditu, besteak 300 euro. Diru hori erabili izan dugu, batez ere, zozketako sariak erosteko. Ehun gaztati gora jartzen ditugu.

Aurten beste nobedade bat ere izango da: ordua. Orain arte, egunean bertan izena emateko eperik ez genuen jartzen. 12etan karrera hasten bazen, 11.55etan oraindik izena eman aritzen zen jendea. Aurten, 11,30ak arte izango da eta zorrotz beteko da. Dorsala jasotzeko ere, 11,30etan itxiko da. Ustez, kalitatea irabaziko du karrerak. Guk aldaketak hobera-ko esperantzarekin egiten ditugu.

Hazten doan eran, azken hiru urtetan, bost itzulitik hirura aldatu behar izan dugu.



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

e txekin
www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- agentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



ABALTZISKETA



biok

z e r b i t z u a k

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Zenbakitan

2009ko datuak, helduetan

106. Iaz 646 korrikalarik hartu zuten parte, Euskal Herriko 106 herri ezberdinetakoak.

30. Horiek izan ziren banatu ziren trofeoak. Korrikalariek diploma bana jaso zuten etxean, egindako denborarekin.

284. Korrikalari helduen artean zozketa bidez banatu ziren sariak.

25. Beasaingo epaile taldeak, 25 urteetan egin du epaile lana, gazta banaren truke.

2009ko datuak, haurretan

383. 28 ikastetxetako 383 korrikalarik hartu zuten parte iazko haurren lasterketan.

24. Trofeo kopuru hori banatu zen haurren artean. Aurten, 32 garaikur banatuko dira. Haur partehartzaile guztiek domina bana jaso zuten.



Goiko argazkiak 1987. urtekoak dira, VII. krosekoak, helduen eta haurren lasterketetako irteerak.

Krosa antolatzeke bolondres askoren laguntza beharrazkoa da, adibidez ondoko orrian ageri den bezala salda egiten dutenak, edo azpiko argazkikoak, 25 urtez Beasaindik gazta baten truke etorri diren epaileak. Antolatzaileek eskerrak eman nabi dizkie, era batera edo bestera krosa lagundu dutenak. Eskuineko bi argazkiak 1998ko krosekoak dira.

zen, lehengo autobus geltokiaren inguruan; gero, plaza parean, helmuga izaten den lekuan.

Oiarbide: Helmuga, plaza barruan egiten genuen.

Ibilbidea gogorra dela esaten dute korrikalariek.

Intxausti: Hala esaten dute.

Oiarbide: Nik uste dut baietz. Azkeneko ibilbide hau egin izan dut eta niri behintzat, oso gogorra egiten zait. Irteeratik bertatik, behetik gora hasten zara, eta luze samarra egiten da. Beheraka hasten zara, baina kurbak direla, erritmoa mantendu nahi duzula, gero berriro gora... nik uste dut gogorra egiten dela. Gogorra egiten da, erritmoaren arabera jakina. Baina jendeari uste dut gustatu egiten zaiola.

Jendeak errepikatzen badu eta gero eta gehiago baldin badator, seinale baietz, ezta?

Intxausti: Nik uste dut arrakasta, gauza askoren ondorioa dela. Ibilbidea gustukoa den ala ez aparte utzita, nik uste dut orokorrean, jendea gustura gelditzen dela. Salda ematen da... Lehen Coca Cola eta ura ematen hasi ginen baina urte mordoak bat badira, negua izaten da eta eguraldia denetik izan dugunez, salda ematen hasi ginela. Salda horrek ere badu xarma. Makina bat salda banatzen da.

Aurreko urtean parte hartu izan dutenei eskutitzez, gonbidapena bidaltzen diezue.

Intxausti: Gonbidapenak bidaltzen orain dela urte asko hasi ginen. Urte Berri on esanez, Hilabetera Idiazabalgo karrera zetorrela eta gonbidapena bidaliz. Aurten ere 646 bidali ditugu. Karrera guztien informazioa bidaltzen diegu, umeak baldin badituzte ere.

Oiarbide: Ondo etortzen da gonbidapena egitea baina hainbeste ari da aurreratzen teknologien mundua, eztabaidan ari gara. Kartela aterako ote dugun, gonbidapenak bidaliko ote ditugun...

Intxausti: Hizkuntzari ere garrantzia handia ematen diogu. Euskara erabiltzen dugu nagusiki-nagusiki. Bigarren urteko kartela elebrietan dago, baina handik aurrerakoak euskara hutsean. Izena ematen dutenean, gurekin komunikazioa, euskara hutsean edo elebrietan izan nahi duten galdetzen diegu. Iazko datuen arabera, 626 eskutitz bidali genituen. 169 elebidunez, eta 457 euskara hutsez jaso nahi zutela esan ziguten. Oso inportantea da niretzat. Aurtengoa ere halamoduzko datua da.

Korrikalaria ondo zaintzen duzuen, mimatzen duzuen, fama daukazue.

Intxausti: Saiatzen gara. Guk daukagun filosofia, partehartzailea, berdintasunezkoa da, korrikalaria errespetatu eta tratatu duina ematen saiatzen gara.

Berdintasunari dagokionean adibidez, berdindu egin genuen ibilbidea. Sariak ere bai. Gogoratzen naiz nolako eztabaidak izaten genituen sariarekin: hasieran, neskei lora sorta ematen genien eta mutilei txapela. Orduan hala zen eta ez genuen pentsatu ere egiten bestela izan behar zuenik. Azkenean, denei txapela ematea erabaki genuen. Kopak ere berdinak.

Ibilbideari dagokionean, urte batzuetan, emakumezkoentzat lasterketa laburragoa izaten zen.

Intxausti: Ibilbidea ere, 2008. urtetik 10 kilometrokoa da bi kategorientzat. Lehen emakumeek ere ez zuten parte hartzen.



Parte hartzaile kopurua helduetan

urtea	emak.	gizon.	guztira
1981	14	57	71
1982	8	73	81
1983	2	63	65
1984	4	37	41
1985	3	61	64
1986	2	90	92
1987	0	58	58
1988	2	60	62
1989	9	56	65
1990	3	67	70
1991	10	74	84
1992	14	112	126
1993	8	145	153
1994	21	149	170
1995	30	166	196
1996	38	160	198
1997	29	168	197
1998	33	155	188
1999	36	196	232
2000	48	220	268
2001	43	269	312
2002	35	278	313
2003	51	300	351
2004	74	339	413
2005	50	309	359
2006	76	411	487
2007	79	437	516
2008	66	560	626
2009	62	585	647

Urte batean, neskari ez zen atera. Emakumeek parte hartzea kosta egin da, eta kilometroak jaisten joan ginen emakumeak animatzeko. Datuekin jokatu egin dugu. 14. edizioan gehitzen hasten dira. Saltoa, 2004an dago. 70en bueltan dabil eta kopuru polita da.

Lehen esan duzuen: garai batean, korrika egiten zuena ikusten zen arrarotzat; gaur egun ia alderantziz; korrika ez egitea da arraroa.

Intxausti: Hala da bai. Datuek beraiek esaten dute. Emakumezkoena ikusi besterik ez dago. Lehenengo urte haietan, 10era ez ziren iristen. Urte haietan gizonezkoa arraroa baldin bazan, emakumea oraindik ere arraragoa zen.

Oiarbide: Oraindik ere, krosaren arabera, emakume gutxi ateratzen da. Kros federatuetan emakume gutxi dabilta. Oso-oso baju dago.

Sarietan dirurik ez duzue banatzen.

Intxausti: Guk beti garbi izan dugu, beharbada eboluzionatuko dugu, baina saritan ez genuela dirurik emango. Orain arte ez genuen kobratzen eta ez genuen dirurik banatzen.

Eduki izan ditugu deiak, eskaintzak, diruagatik etorriko zirela... Inori inoiz ez diogu eman. Sarietan dirurik ez dagoela ikusita, batzuk ez dira etortzen. Batzuentzat bizimodua ateratzeko modua izango da eta sarien bila ibiltzea normala da baina ez da gure filosofia.

Oiarbide: oso kros herrikoia izan da beti partehartzaile aldetik eta figura aldetik ere bai. Figura izugarriak ez dugu izan; Gipuzkoako mailako onentsuenak etorri dira. Dirua dagoenean, eliteko kirolari gehiago azaltzen da.

Dena den, sari ugari banatzen duzue.

Oiarbide: Jendearengana iristea, jendea gustura sentitzea da garrantzitsua.

Intxausti: Zozketak ere hor daude. Sari asko daude. Lehenengo hiruei, bai umetan, bai helduetan, bai beterranoetan, bai herritarretan, saritzen ditugu. Herritarrak ere zaindu egiten ditugu, guk ere herritarrak nahi ditugu eta krosetan. Badakigu herritarrek karrera hori irabaztea oso zaila dela. Gertu dabilta eh? Iaz Iker Zurutuzak laugarren egin zuen, baina irabaztea zaila dago. Beraz, herritarren artean sailkapen berezia egiten dugu eta haiek ere poxa izan dezaten. Baina podiuma hiruk egiten dutenez, nola iritsi beste 600engana? Zozketa bidez. Denek gustura hartzen dute. Saiatzen gara, herrian bertan daukagun produktuak ematen, batez ere, gazta. Jendeak gustura hartzen du gazta. Guk korrikalaria saritzen dugu baina antolatzailerak saritzen ditugu.

Umeen lasterketak izaten dira, helduena hasi aurretik.

Intxausti: Nik uste dut berehalaxe hasi ginela. Nik eskola kirolaren ardura 1986-87an hartu nuen eta orduan, mundu hori ezagutzen hasi ginen. 1987an hasi ginen, mailaz mailako lasterketa antolatzen haurrentzat. Ordura arte, gazteak eta helduak ziren.

Aurten umeen karrera, ordu laurden bat aurreratu dugu. 10,45etan hasiko da, umeetan bi karrera gehiago sartu ditugulako. Benjaminetan bi maila jarri ditugu, 2001ean eta 2000an jaiotakoak, neskak eta mutilak.

Umeek familia ekartzea dakar. Jende ugari inguratzen da.

Intxausti: Bai, partehartzailea, 8 urtetik hasi eta 80 urtera arte-

koa da. Aukera zabala dago, adinaren eta neurriaren arabera. Jakina, horrek ekartzen duen inguru guztiarekin. Festetako ekintzarik jendetsuena izaten da.

30 urteotan makina bat bitxikeria izango zen.

Gogoratu eta kontatu daitekeen baten bat.

Intxausti: Bi dauzkat gogotan. Hasiera-hasiera zen, eliza parean irteera egiten zenean. Justu irteera eman behar zen momentuan, 10 segundu falta ziren txistua jotzeko, eta izugarritzko kazkabarra hasi zuen. Denok elizako aterpe azpira joan ginen, babesera. Horrekin lotuta, beste ezaugarri bat da, puntualtasuna. Puntuan hasten ditugu karerra guztiak eta hori garrantzitsua da korrikalariarentzat.

Beste bitxikeria bat ere bai: ez dakit noiz izan zen baina behin, gizon bat, txakur txiki batekin etorri zen eta elkarrekin egin zuten korrika.

Oiarbide: Hasieran zozketak nola egiten genituen ere, curiosoa da: dortsalak basura poltsa batean sartzen genituen eta banan-banan ateratzen joaten ginen. Luze egiten zen. Geroxeago, dortsalak berrerabili egin nahi genituelako, dorsalaren truke zozketarako sobrea ematen genien korrikalariari. Sobrea ireki eta bertan azaltzen zen saria edo eskerrik asko etortzeagatik esaldia. Dorsalik gehienak berreskuratzen genituen. Garai batean, jende gehientzuen sariarekin joaten zen.

Axari korrikalaria da zuen logotipoa.

Beatriz Telleriak egindakoa da. 22. edizioan jaio zen logotipoa. Axariari dorsala jartzea proposatu genion eta pentsatu genuen, egin zuen urtea jartzea. 22rekin gelditu zen, eta guretzat badu esanahia. Oso gustura gaude.



Zutik, ezkerretik eskuinera: Lake Oiarbide, Koldo Egizala, Juan Urteaga, Juanjo Aseginolaza eta Agustin Urteaga. Eserita: Beatriz Telleria, Tomas Aldasoro, Xabier Intxausti, Maite Telleria eta Juanma Aldanondo.

Antolatzaile taldea

Antolakuntza taldeaz gain, 60 lagunetik gora laguntzaile behar izaten dira...

Oiarbide: antolaketaarekin lotuta, aparkalekuak ondo lotuta dauzkagu. Bi sarreretan jendea jartzen dugu. Goiko aldea betetzen hasten gara lehenengo, eskola ingurua; gero itxi egiten dugu karrera hasterako. Ondo kontrolatuta daukagu, kotxeei banaka-banaka esaten zaie non aparkatu. Oso leku gutxitan ikusten da horrelako antolakuntza. Guretzako eta jendearentzako oso inportantea da. Geroz eta gehiagora doan eran, futbol-zelaiko aparkalekua ere erabiltzen dugu. Ampo aldera ere bai.

Intxausti: Antolakuntza sendoa dela esango nuke. Zazpi pertsona gaude, motorra edo garena. Bat edo beste izan ezik, denok hasieratik gabiltzanak gara. Informatika taldea ere sendoa da. Hasieran eskuz hartzen genituen datuak; gero idazteko makinarekin. Ordenagailua 17. edizian, 1997an, sartu genuen. Orduan Beatriz eta Maite hasi ziren. Beatrizek sortu zuen krosaren orria. Pixkanaka informatizatzen hasi ginen. Izkutuko lana, ikusten ez dena, asko da. Beste taldea, egunean bertan lanean aritzen dena da. Jende fijoak daukagula esan dezakegu. Hesiak jartzen, aparkalekuak, bidegurutzeak, salda prestatzen eta banatzen, haurren sailkapenak idazten, bi kontroletan bideoarekin hartzen... Iaz 67 lagun ibili ziren egunean bertan lanean.

Lasterketaren aurretik eta atzetik joaten diren txirrindulariak ere badituzue

Intxausti: Hasiera-hasieran motorrarekin ibiltzen ginen, movilletearekin. Hark ere kea botatzen zuen eta kutsatu egiten zuenez, bizikletarekin hasi ginen. Urte asko daramatzagu bizikleta atzean eta bizikleta aurrean. Nik uste dut beti detaileak zaintzen joan garela. Kros bat, zerk egiten du handia? Gauza handi bat eginda? Ez, detaile txikiak zainduz.

Antolatzaile-laguntzaileen artean ere zozketa berezia egiten dugu. Urtero, lau pertsona ezberdinei tokatzen zaie lotetxo bat. 2006an hasi ginen horrekin. Gure lana otsailaren erdialdean bukatzen da, korrikalari guztiei, egin duten denbora azaltzen den diploma bildalitakoan. Orduan, antolatzen ibili garen guztiok sagardotegian afaritxo bat egiten dugu.

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

Ordizia

Laguntasuna Errondailak 50 urte

Ordiziako Laguntasuna Errondaila 50. urteurrena ospatzen ari da egunotan. Otsailaren 6an, diskoa aurkeztuz hasiko dute ekitaldi sorta. Egun horretan bertan, argazki eta jantzien erakusketa irekiko da Barrenan.

Otsailaren 13ko egitaraua

11:00etan: Errondailako partaideen artean dauden hildako-en oroitzapenez meza, Santa Ana abesbatzarekin.

12:00etan: Laguntasuna Errondailaren partaideak eta taldean parte hartu izan dutenak, kalez kale ibiliko dira kantuan. Ondoren, Plaza Nagusian kontzertua izango da.

14:30ean: Bazkaria izango da Beti Alai pilotalekuan, 40 euroren truke. Bazkariko txartelak aurrez erosi behar dira.

Otsailaren 20an errondailen bilkura

Legazpi, Lizarra eta Barakaldoko errondailekin batera, kantuan ibiliko dira Ordiziako kaleetan.

Argi Berrin, mus txapelketa

Otsailaren 13an jokatuko da XXXIII. Mus txapelketa azkarra Argi Berri Elkartean, arratsaldeko 4,30etan hasita. Sari ugari izango da. Bikote irabazleak adibidez, 1.500 euro eta txapela jasoko ditu. Bigarrenak, 800 euro.

Beasain Ordizia

Antzerki Garaia

Otsailak 5, ostirala:

22:15ean: 'Aitarekin bidaian' (Hika teatroa). Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Otsailak 19, ostirala:

22:15ean: 'Euskarazetamol' (Ez dok hiru Bikoteatroa). Ordiziako Herri Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Lazkao

Liluratura

Hurrengo Liluratura saioa Uxue Alberdirekin izango da Gerriko txokoan. 'Aulki-jokoa' liburua irakurri eta elgoibartarrarekin hizketan jarduteko aukera izango da, martxoaren 2an, arratsaldeko 6,30etan.

PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

LEIAR **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Ikaskide akademia

Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbialde plaza 7- 943 027 792
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierrko Unibertsitatea

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurmena, kalkulua, ikasketa teknikak

disek **ibaiondo** altzariak

• barne diseinua
• dekorazioa
• sukaldeak
• proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
tel.: 943 16 40 40
faka: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

Pottoka KAFETEGIA

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



Idiazabalgo Herri Krosa 1981. urtean

Argazkia Idiazabalgo Herri Krosaren lehen urtekoa da. Bertan Jesus Serrano Idiazabal Kirol Elkarteko lehendakaria ageri da Ibarako Jose Mari Agirrezabalari irabazlearen txapela jartzen.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



RENAULT LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × e.a.


AUZOKI

Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

www.jakintza.net



Heziketa euskalduna eta eleanitza
Europar saritutako proiektuak
Kalitatezko hezkuntza
Emitza bikainak
Irakasleria iraunkorra eta
konprometitua
Hurtzaindegia
Jangela
Garraioa

INFORMAZIO BILERA

otsailaren 3an (asteazkena)

17:00etan Euskaraz eta 18:30ean Gazteleraz

jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g - ORDIZIA

943 16 05 40

ordizia@ikastola.net





Urdaneta-Oianguren eskola euskalduna, anitza eta parte hartzea bultzatzen duena da. Gure hezkuntza proiektua pertsonen heziketa osoan oinarritzen da, bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuz.

urdaneta
oianguren
ordiziako ikastetxe publikoa

URDANETA HI Intsausti Plaza z/g. - Tfnoa.: 943 88 27 80 - Fax: 943 16 18 16
20240 **ORDIZIA** (Gipuzkoa) - 012279aa@hezkuntza.net - www.urdanetaikastetxea.org

OIANGUREN BHI Altamira Auzoa z/g. - Tfnoa.: 943 88 08 62 - Fax: 943 16 41 21
20240 **ORDIZIA** (Gipuzkoa) - 012282aa@hezkuntza.net - www.oianguren.net